
LITERATURA

KONTU-KONTARI

LEA-ARTIBAIN ZEHAR KOPLA ETA BERTSO KANTARI (1988-1989)

Orain dala urte asko baziren ikastoletan ekintza bizi eta politak, egunerokotik urten eta umeen gogoan pozez betetzen ebena. Horreerikoa zan, koplak eta bertso saioak, buruz ondo ikasi eta herriz herri kantari joatea. Paper zaharren artean aurkitu ditut halako jardunaldi polit batzuen lekukotasunak.

Urterik urte apur bat desbardinak izaten ziran. Gogoan dot, lehenengo urtean bertsolari zaharren biografia txikitxoak landu genduzala. Ondo prestatu genduan ordu erdi pasatutxoko saioa. Irakurle on-onak nituen eta hareek jarri nituen kronikari, bertsolari zaharren biografia laburpenak irakurtzen; gero, besteak buruz ondo ikasirik zituen bakoitzaren bertsorik ospetsuenak kantatzen zituen. Adoretu, bertsolari benetakoak imitatuz, mikrofonotik. Fernando Amezketarra, Xenpelar, Uda-erregi, Zizurkilgo Otañotarrak, Txirrita, "Urretxindorra"... agertu ziren umeen ahotsean, eta baeukan grazia; gainera, bertsolari zaharrak heroi eta pertsonaia ohoretu eta ospetsu moduan agertzen ziran ume euskaldunen kontzientzian.

Lehenengo urtean holan eratu genduan saioa. Eta atsegin gertatu zan, bai protagonistentzat, bai entzuleentzat. Baina hurrengo urterako, jakina, formatua aldatu egin genduan eta hurrengo urteko hau, 1988-1989ko ikasturtekoa izan zan. Hone-

taz jardungo dot idazlan honetan. Orain dala 32 urte zan. Egin dau euria ordurik hona!

Nondik nora otu jatan honetaz *Karmel* aldizkarian idaztea? Orain dala 15-20 egun, asaskaldi gozo bat izan genduan Juan Luis Goikoetxeak eta biok telefono-haria bitarteko. Lauroetako koplari eta koplekin liburu bat laster ateratzeko ziralakoa inoan berak. Nik be orduantxe esku-eskura izan nituan herriz herri umeekin eginiko saioen paperak eta kantatu neutsazan batzuk, Amurizak, musikariak eta Lopategi eta Azpillaga lagun zituala egin ohi zituen kantaldietan, kantatzen eban kopla-doinuaz. Agur egin orduko esan eustan, ze biok idatzi behar genduala *Karmelen*, berak Lauroetako koplaz eta nik herriz herri umeekin egiten genduzan kopla eta bertsoen kantaldiez. Nik, badaezpada, ez neutsan emon baietzik, baina neure baitan baietza zan, eta hauxe da horren berrespena...

Saioaren ia hari guztiak nik neuk eratzen nituan aurrez eta umeak gogotsu ikasten eta prestatzen zituen. Gero, jende aurrean, agertokian, umeak hartzen eben protagonismo osoa, nik pixka bat atzetxotik, ezkutu antzean, gidatuz.

Egitura hau zan zehatz esanik: bertako ikastolako batek aurkezten ginduzan gu berba gitxitan eta gero, gure umeen bana-banako aurkezpen zehatza hasten zan. 1) Ume bakoitzak bere burua aurkezten eban kopla txikian, aitaturiko X. Amurizaren doinua erabiliz. Erdiak-edo doinu hori erabiliz eta gainerako erdiak, monotonia haustearren, Mixel Labegerieren *Gure eliz dorreko (dilin-dalan)* doinuan. 2) Aurkezpen ondoren, Lea-Artibaiko herriei zortziko txikian kantatzea etorran (Doinua *Bateltxoa kulunkan* eta *Uso xuri polit bat*. Herrietako bertsoetan ez etorran Markina-Xemeini eginikorik. 3) Bost bertso ondu genduzan Markina-Xemeini eskainiak, *Iparragirre abila dela* doinuan eta honeek bertorako egokiturik eratu genduan saio aparteko baterako itzi genduzan. 4) Sei bertso zortziko txikian, eskolako giroa kontatuz eta kantatuz (doinua *Astoa ikusi nuen*). 5) Udaberriari koplak; kopla handian *Gure baratzan / sagarra loran* doinuan (Gorka Knör). 6) Uda eta

oporrak; koplak handian *Aita-emeak tabernan daude* doinuan. Zazpigarren bat ere bageunkan prestaturik, entzuleak gehiago eskatu ezker-edo...

1. Umeen bana-banako aurkezpena

- *Aurrean daukazue / bemen Unai Goti,
koplatan aritzea / atsegin zait beti.*
- *Amaia dut izena / Gasparrenekoa,
bertsoak kantatzeko / taxu onekoa.*
- *Kaixo, lagun maiteok, / Gorka dut izena,
izatez jatorra ta / gorputzez gizena.*
- *Irune dut izena / Markinatik nator,
bertsotan egiteko / gogor eta jator.*
- *Eñaut Ibarra doa / bastera koplatan,
entzuleon arreta / irabaztekotan.*
- *Eneritz nauzue ni, / Markinatik gatoz
guztiok alaitzeko / kantatzera gogoz.*
- *Mutiko ona naiz ta / izena dut Aritz,
kantatzen ibiltzen naiz / makina bat aldiz.*
- *Olaia dut izena / eta markinarra;
txanda heldu zait eta / erantzun beharra.*
- *Hemen duzue Aitzol, / bamaika urtekoa,
gogotsu nator hona / sasoi betekoa.*
- *Alazne nauzue ni / bertsolari ona,
hobea izateko / egin behar lana.*
- *Zorion Kareaga / mutiko sendoa,*

guztiok alaitzeko / badaukat gogoa.

*– Alaitz daukat izena, / Markinakoa naiz,
lagunartean koplak / kantatzen ditut maiz.*

*– Orain Arkaitz Olalde / duzue aurrean,
une hau pasatzeko / umore ederrean.*

*– Nagore Urkidi naiz / neska biburria;
koplatan hustuko dut / neure iturria.*

*– Aurrekoen segidan / Arkaitz Pagaegi,
nik neurea bota dut / atzekoak segi.*

*– Markinako Marixe / etorri da hona,
soka ez da amaitu / puntu eta koma.*

*– Berriatukoa naiz, / Jagoba Arrasate;
futbolean onenen / artean naukate.*

*– Ostaiska dut izena / Markinatik nator,
zuek pozteko asmoz / lasai eta jator.*

*– Barroetako Maite / Txurruka deituraz,
kantatzen ari gara / zuok poztu guraz.*

*– Ainara dut izena / Markinatik nator,
bamaika urte eta / bertsolari jator.*

*– Luzaro zain egonik / dator Letizia;
banuen nik gogoa / edo gutizia.*

*– Neska polit bat naiz ni / ile luzeduna,
esan beharrik ez da, / oso euskalduna.*

*Oraindik ez dizuet / agertu izena,
Itxaso naiz ta horra / neure aurkezpena.*

2. Lea-Artibaiko herriei ateratako bertsoak

*Menditik eskegita / bebean itsasoa;
lehorretik besia / lepoa jaso,
hortxe barrapaturik / da herri osoa,
itsasotik konpondu / behar arazoa.*

*Ondarruko zeruan / kaioak begazkin,
olatuak dabiltza / jolasten baitzekin;
gu ere bildu gara / hemen elkarrekin,
geure kultura lantzen / behar dugu ekin.*

*Lekeitio herria / aipatzen denean,
toki apaina dugu / irudimenean;
eliza gotikoa / bere barrenean,
udan da Lekeitio / onen-onenean.*

*Arimaraino sartzen / da hemen kresala,
mendietako baize / garbia bezala;
gu gara lehorreko / haur-talde apala,
itsaso ta lehorrak / elkar daitezala.*

*Lea ibarra dugu / pozik zebarkatu,
gaurkoan ari gara / bertso eta kantu;
berauren aitzakiaz / zuekin elkartu;
gaizki irteten badu, / mesedez, barkatu.*

*Herri txikiak baina / benetan jatorrak,
mendien babespean / toki iraunkorrak
Oiztik itsasora / doazen alorrak...
euskal obiturak zaintzen / hauek bai gogorrak!*

*Oizpetik lehenengo / dator Munitibar,
errepideak bertan / ditu hainbat adar;
Arbatzegi-Gerrikaitz / bi auzotan zehar
zabaltzen da herria / haran eta bizkar.*

*Bigarrena Aulesti / Urregaraiplean,
Lealde bonetako / herrien katean;
etxe bikainak eta / kalea tartean,
zahar kutsu aparta du / bere izatean.*

*Aurrera jo ezker / Gizaburuaga,
bide-bidean dugu / hor lau haizetara,
askok ihes eginik / ez dakigu nora;
sagardo gozoa ez / edan gabe laga.*

*Beste herri bat ere / badugu gogoko,
Oletatik gora joz / egin dugu topo;
ikuspegi polita / denon pozerako,
goitik begira dago / gure Amoroto.*

*Lekeitiotik aurrera / han dago Izpazter;
itsaso ta lehorra / eskuin eta ezker;
plazan haritz eder bat / frontoia ere laster;
ikus itzazue ta / nik ez diot ezer.*

*Lekeitioren gainean / poliki jarria,
ezin abaztu inola / Mendexa herria;
errepidea gorantz / nahiko bihurria,
handik ikusten dena / bai zoragarria!*

3. Markina-Xemeini “Iparragirre”ren doinuan

Zapolapean kokatu zuten
 asaba zaharrek Markina
 albait txukunen eraikitzeko
 eginikan ahalegina;
 garbi eta apaina
 sortu zuten antzina
 Artibai aldeko buru;
 gaur egunean izango ditu
 bost mila lagun inguru.

Erdi-erdian Markina zaharra
 aldamenean zelaia
 ertzeko ibar jorian zehar
 jauzika dator ibaia;
 orain pilota-gaia
 euskal joko alaia
 ezin ahaztu guk inola,
 nork ez daki Markinaldean
 txistera faman dagola?

Zerbitzu batzuk ere segidan
 beharko dira aipatu
 udala eta suhiltzaileak,
 azoka edo merkatu;
 ikasleon ostatu
 eskola goraipatu
 gure bigarren etxea;
 guk Bera Kruzen lortuko dugu
 geure burua hezitzea.

Historiari dagokionez
badu ospe eta hotsa:
Arretxinaga alde batetik,
bestetik, berriz, Ziortza;
ezin ahaztu Erdotza,
ez zaigu ez arrotza
ez eta Karmengo Ama,
Xemeinek ere arte aldetik
merezia dauka fama.

Gure sustriak zeugan dituzu,
Markina herri txukuna,
bertso-kantari gatozkizu gaur
gure sorterri kutuna;
zuretzako jarduna
prestaturik genduna
zukanako esker onez,
“Iparragirren” doinuan hemen
azken agurra emonez.

4. Eskolako giroa

– Mantei eman diet / lehenengo ostikoa,
latzena izaten da / horren ostekoa:
goizeko jaikiera / ez dut gogokoa,
abiada hartuta / gero betikoa.

Pentsa dezakezue / pozarren gaudela,
baina hau ez da beti / uste den bezala,
erraz eta zailetik / denetik duela
ateak zabal-abal / zain dugu eskola.

Gozo eta garratza / berekin daduka
 ordu bakoitzak bere / seinalea du-ta;
 lagunarteko poza / hori ezin uka,
 baina liburuekin / da gure burruka.

Liburu artean da / gure tematika,
 gehienetan hizkuntza / ta matematika;
 irakasgai-zerrenda / ongi ikusita,
 atsegingarrienak / bertso ta musika.

Azterketa garaia / ia hurbildu da,
 kantuz zegon kukua / isildu da jada;
 ongi gainditu arte / jartzen zaigun muga,
 ezin dugu gozatu / datorkigun uda.

Zaparrada galantak / eta euri-jasak,
 datorrenari eutsi / nahiz izan eskasak.
 ikasturteko faltak / ta denbora-pasak
 dituzte emaitza txarrak / edo kalabazak.

5. Udaberriko koplak

*Euskal lurrean zubaitzak loran
 udaberriko seinale,
 kukua ere biburtu zaigu
 gure basoko biztanle.*

*Airean zehar lorerik lore
 begaka pinpilipauxak;
 hemen gaude gu mutil jatorrak
 eta neskatxa panpoxak.*

*Txori txikiak berritsu daude
basoan kantu-hotsean;
geuk ere poza zabal dezagun
gaurko koplak bakoitzean.*

*Sorgin-orratzak begazkin gisa
uren ispilu-dirdira;
kopletan doa irri gozo bat
zuen bibotzen erdira.*

*Dena jantzi da kolore biziz
udaberriaren modan,
Eguzki jauna keinuka dago
bere labezko ganbaran.*

*Belar azpitan gitarra jotzen
aritzen dira kirkilak;
esperantzari kantatu gabe
ezin egon gu isilak.*

*Urtaroetan politena da
koloretsu ta aberats,
etorkizunak agintzen digun
fruitu ugarien ardatz.*

*Kantatzen ari gara alai,
hau bai gauza eroso!
zuonganaino heldu dadila
gure pozaren gozoa.*

6. Uda eta oporrak

*Udako egun garbi, beroan
eguzkiaren barrea!
gure bakeak uxa dezala
gizarteko haserrea.*

*– Azken esprina egin ondoren
badatozkigu oporrak;
zain daduzkagu hondartzak eta
baso nabiz mendi-tontorrak.*

Udako egun...

*– Aukera onak izaten dira
udan bidaietarako,
herririk herri hara-honaka
ibiliko gara bapo.*

Udako egun...

*– Aipatu nabi dut udak urtero
dakarren alde alaia,
han eta hemen izaten baita
herriko festen garaia.*

Udako egun...

– *Oporraldian bizikleta da
kirol guztien errege
“Vuelta España” eta “Giroa”
baina “Tourra” batez ere.*

Udako egun...

– *Bertsoak ere entzun daitezke
edonongo jaialditan,
bitzezko jolas polit hoietan
izango gara sarritan.*

Udako egun...

– *Udalekuak eta skautak
izan obi dira aukeran,
izadiaren ukitu horrek
poza sortzen du guregan.*

Udako egun...

– *Euskaldunaren legea behintzat
kontutan izan lebenbizi:
bitz egin beti euskaraz eta
edonon euskaraz bizi.*

Udako egun...

Azken berbatxoak

Atsegin izan jat atzerantz begiratu eta iraganak erdi-iruntsi dauan etapa polit hori barriro bistara ekartzea. Bide batez, joan jakun gaztetasunari goraintziak hemendik! Haren goizaldeko ihintz freskoz busti nahi izan dot oraingo neure ilunabarra...

Zer ikusi dodan atzerik harako begiradaz? Denboraren joanean, ume batzuen aurpegiak agertu jataz aurrera eta beste batzuenak, ezkutatu, normala danez. Kantaldi alai hareetako umeetatik bat baino gehiago bertsolari on bihurtuko zalako esperantza neukan; izan be, ameslari izatea ona da, eta ume hareek horretarako motiboak emoten eustezan. Begiz jota eta neure baitan apartatuta (hautatuta) lez neukazan bat edo bi; aurrera egingo ebenak mutikoak izango zirala uste neban, neskak orduan nekez agertzen ziralako bertso-plazetan. Baina nire kontuak oker joiazan, kontizu! Sekulako ezusteko pozgarria izan zan neska bat, Iratxe Ibarra, bertsolari on bihurtzea. Beste aurpegi bat be gogoan daukat; baina ez bertso-plazetan egin dauanagaitik, kirolean egin dauanagaitik baino: Berriatuko Jagoba Arrasate Elustondo. Lea-Artibain zehar eginiko koplak eta bertso kantaldian, aurkezpena egitean, holan kantatu eban:

BERRIATUKOA NAIZ,

JAGOBA ARRASATE;

FUTBOLEAN ONENEN

ARTEAN NAUKATE.

Txikitatik argi eukan norantz joan nahi eban. Baditut, Jagoba bitarte dala, pasadizo pare bat, bertsoetakoak baino gehiago futbolekoak. Nik bertsoen teknika, neurriak, errimak, doinuak etab. irakasten neutsezan, eta hortik aurrera J. Lopategik hartzen zituen. Bazan bost edo seiko taldetxo bat bertsoez eta

futbolaz oso zaleturik ebilena; horreen artean ziran Gorka Ostolaza, Jagoba Arrasate eta Jon Ansotegi. Behin bertsoaritzako ikastalditxoak amaitu zanean, futbolaz berbetan hasi ginan. Besteak ez dakit, baina hiru honeek Real-zaleitsuak ziran; eta txikitatik ondo markatua euken joera. Nik, txantxetan-benetan, esan neutsen ze, gu bizkaitarrok Athletic-zaleak ginala... *Ez, gu beti Realaren alde* erantzun eusten aho batez, eta ez egoan arrazoirik hortik hareei jeurt eragitekorik. Beste pasadizoak ez dauka bertsoekin zerikusirik eta bai futbolarekin: Karnabaletako martitzenean ez genduan eskolarik izaten, baina Ikastolan alkartzen ginan ikasle eta irakasle, jai egiteko. Bera-Kruzen moztarrok, Markinan "Kokoxak" esaten eutsen lehenago, eta kirolak izaten genduzan. Futbol-partidua, irakasleak ikasleen aurka. Juanjo Ugarte zan irakasleen entrenatzailea. Jose Patxi Irueta ondarroarra, Joanjo bera, Rafa... futbolista onak geunkezan. Lehenengo urteetan maisuak izan ginan nagusi; azken bietan, osterak, ikasleak. Ni atzelari nengoan eta gogor sartzen nintzan, baina Jagoba ezin gelditu izan neban eta hainbat gol sartu euskuzan...

Hona non koplak eta bertso kantaldiez hasi eta futbolaz berbetan amaitzen dogun; izan be, parean gertatu dan protagonistak horrantz eroan deusku jarduna.

Luis Baraiazarra Txertudi